Bikaintasuna euskal ikasketetan XII: Egon eta egin, sustraiak sendotuz aurrera begira

Uzt. 11 - Uzt. 12 2022

Kod. K07-22

Mod.:
Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa
2022

Jarduera mota
Uda Ikastaroa

Data
Uzt. 11 - Uzt. 12 2022

Kokalekua
Miramar Jauregia

Hizkuntzak
Euskara

Balio akademikoa
20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Azalpena

Euskara eta euskal kultura nazioartean sustatu eta hedatzea du helburu Etxepare Euskal Institutuak. Gaur egun, 35 irakurletza ditu Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetan, eta horietan euskara eta euskal kulturako 28 irakasle ari dira lanean. Horiez gain, 9 katedra ere sortu ditu, beste horrenbeste unibertsitatetan. Ikastaro honek egungo irakurleen eta etorkizunekoen prestakuntza sendotu nahi du eta, horretarako, euskararen eta euskal kulturaren jakintza arlo ezberdinetako adituak gonbidatu ditu, aurreko urteetako bide beretik. Hortik “Bikaintasuna Euskal Ikasketetan XII” izenburua.

Aurtengoan bi norabidetara begira ipintzeko asmoa dugu: atzera eta aurrera.

Gaur egun gauden egoeran egon gaitezen, euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzan orain arte egin denaz hausnartzeko astia hartu nahi dugu batetik. Gure sustraietan arreta ipiniz, non eta nola hasi ginen gogoratuko dugu.

Bertan goxo geratu ordez, aurrera begira jarraitu nahi dugu, ordea, eta etorkizunean zein urrats egin beharko ditugun eta erronka berriei aurre nola egin beharko geniekeen pentsatzeko ere tartea hartuko dugu.

Helburuak

Euskararen irakaskuntzaren oinarriak gogora ekartzea eta alor horretan protagonista aktibo izan direnen esperientzia partekatzea.

Etxepare Euskal Institutuko irakurletzen hasierako urratsei buruzko hausnarketa egitea gaur egungo begiradatik.

Aurrera begira, euskarak eta euskal kulturak, bai nazioartean, bai mundu digitalean dituen erronka berriei nola aurre egin gogoeta egitea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

Programa

2022-07-11

09:15 - 09:25 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

Garbiñe Iztueta Goizueta | Etxepare Euskal Institutua - Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendaria

---

09:30 - 10:30 “Aproximación a la gramática cognitiva: un instrumento eficaz para el aula“

Lourdes Miquel López | Escuela Oficial de Idiomas de Barcelona - Catedrática de español como lengua extranjera **(Zoom bidez parte hartuko du)**

10:30 - 11:30 “On line saioak dinamizatzeko trikimailuak eta tresnak“

Amaia Arroyo Sagasta | Alholkularia eraldaketa digitalean

11:30 - 12:00 Atsedena

12:00 - 13:00 “Etxepare Institutuko irakurletzetan euskara irakasteko menuak: osagai gozoak eta gazi-garratzak“

Karlos Cid Abasolo | Madrilgo Complutense Unibertsitatea - Irakaslea

---

13:00 - 13:15 Sintesia

16:00 - 16:45 “Gela iraulia unibertsitate mailako euskara ikastaroetan“

Gorka Mercero Altzugarai | University of Liverpool - Irakaslea

---

16:45 - 17:30 “Atzerrian, lehenengo egunetik euskaraz?“

Claramunt Araitz | Helsinkiko Unibertsitatea - Euskara eta euskal kulturako irakurlea

---

2022-07-12

09:15 - 10:15 “Siboneitik Kubanakanera.“

Joseba Sarrionandia Uribelarrea | Habanako Unibertsitatea - Idazlea eta irakaslea

---

10:15 - 11:15 “Memoriaren garrantzia euskal kulturan.“

Aritz Galarraga Lopetegi | Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa - Irakaslea eta idazlea

---

11:15 - 11:45 Atsedena

11:45 - 12:45 “Eleaniztasuna euskal kulturan“

Xabier Payá Ruíz | - - Bertsolaria eta itzultzailea

12:45 - 13:00 Sintesia

16:00 - 16:45 “INGURA, euskara online“

Eskarne Lopetegi Zalakain | HABE - Teknikaria

16:45 - 17:30 “Euskal musika eta euskararen harremana.“

Amaia Gabantxo Uriagereka | - - Irakaslea eta itzultzailea

17:30 - 17:45 Itxiera

Garbiñe Iztueta Goizueta | Etxepare Euskal Institutua - Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria

Zuzendaritza

Garbiñe Iztueta Goizueta

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Irakaslea

---

Garbiñe Iztueta Aleman Filologian eta Ingeles Filologian lizentziatua da, eta Filologia Modernoan doktorea, literatura konparatuan. 2017tik 2023 urtera Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria da Etxepare Euskal Institutuan. Aurretik Euskal Herriko Unibertsitatean egin du ibilbide luzea, Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza saileko irakasle gisa (1998-2017 eta gaur egun), baita Aleman Filologiako koordinatzaile (2014-2017) eta Letren Fakultateko Nazioarteko Harremanetarako eta Mugikortasun Programetarako dekanorde (2007-2011) moduan ere. Honako gaiak izan ditu hizpide eta aztergai bere proiektu eta argitalpenetan: Alemania eta Euskal Herriaren arteko kulturartekotasuna, Euskal Herriaren irudia alemanezko bidaia-deskribapenetan, espazioa, emozioa, aberria eta oroimen-lekuak Ekialdeko alemaniar literaturan, botere espazioak Herta Müller idazlearen prosan eta identitatea Alemaniar Batasunaren ondorengo literaturan.

Irakasleak

Claramunt Araitz

Araitz Claramunt euskara eta euskal kulturako irakurlea da 2019az geroztik Helsinkiko Unibertsitatean. Suedian bertan, Malmöko Unibertsitatean, Media eta Komunikazio Ikasketen masterra ari da egiten, eta Linköpingeko Unibertsitatean, aldiz, Helduen Ikaskuntzari eta Aldaketa Globalari buruzko masterra. Aurrez, 2018an, Lehen Hezkuntzako Irakasle Gradua eskuratu zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta Doneztebeko eskolan aritu zen lanean behar bereziak dituzten haurrekin.

Amaia Arroyo Sagasta

HUHEZI - Mondragon Unibertsitatea, Irakaslea eta ikerlaria

Amaia Arroyo Sagasta Komunikazioan eta Hezkuntzan doktorea da, eta Doktoregoko Sari Berezia eskuratu zuen. Gainera, UNEDen Komunikazioa eta Hezkuntza Sarean masterra eta Mondragon Unibertsitatean IKTak hezkuntzan masterra egin zituen, eta hasierako formazio gisa Hezkuntza Bereziko Irakasle Ikasketak. 15 urte baino gehiago eman ditu irakasleak teknologia digitalaren erabilera pedagogikoan formatzen. Irakasle, aholkulari, ikasmaterial egile eta editore lanak egin ditu, beti ere, ikuspegi teknopedagogikoa ardatz hartuta. Nazioarteko kongresuetan parte hartu du eta akademian modu aktiboan dihardu, artikuluak, liburu-kapituluak eta liburuak argitaratzen. Estatu eta Europa mailako proiektu lehiakorretan ere parte hartzen du, eta komunitateko kide aktiboa da, Edutec eta RUTE bezalako sareetan parte hartuz. Gaur egun, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) irakaslea eta ikerlaria da. KoLaborategian, Digitalizazioa arloko ikerketaren koordinatzailea da, baita Lehen Hezkuntzako Graduko Berrikuntza Digitala aipamenarena ere. Bere ikerlerroak honakoa hauek dira: konpetentzia digitala hezkuntzan, ikaskuntza inguruneak eta ekosistemak eta diseinu teknopedagogikoa.

Karlos Cid Abasolo

Karlos Cid Abasolo (Madril, 1963), Madrilgo Unibertsitate Autonomoan Filosofia eta Letretan 1986an lizentziatua eta Hizkuntzalaritzan 1994an doktoratua (Tesiaren izena: "Tipología de la relati¬vización en

español, checo y euskera: cotejo de las lengua románicas, eslavas y vasca respecto a ciertos fenómenos relativos"). 1987tik 1989ra, euskara irakasle Pragako Karlos Unibertsitatean. 1989tik 2005era, Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizialeko euskara irakasle. 1998tik hona, Euskal Filologiako irakasle Madrilgo Universidad Complutensen (2007tik, irakasle titular gisa). Itzultzaile gisa, txekiar literaturako hainbat lan euskaratu ditu (besteak beste, Milan Kunderaren Izatearen arintasun jasanezina, 2010ean Euskadi sarietan finalista). Euskalari gisa, euskal sintaxi eta onomastika, itzulpengintza eta hizkuntza tipologiari buruzko ikerketa ugari argitaratu dizkiote. Eusko Jaurlaritzaren Aholku Batzordeko kide ohi (2011-2014). 2010etik hona, Euskadi Irratiko Faktoria magazineko kolaboratzaile. Bestalde, bi poema liburu idatzi ditu (Keinu konplizeak, Susa, 2018, eta Laztanak eta aizkorak, Booktegi, 2020).

Amaia Gabantxo Uriagereka

Amaia Gabantxo idazlea, abeslaria eta literatura-itzultzailea da. Euskal literatura ingelesera itzultzen du. Miren Agur Meabe, Bernardo Atxaga, Harkaitz Cano, Alaine Agirre, Gabriel Aresti, Lourdes Oñederra eta Unai Elorriagaren lanak itzuli ditu, beste askoren artean. Irlandako eta Ingalaterrako unibertsitateetan egin zituen literatura eta itzulpengintza ikasketak. University of East Anglia, University of Chicago eta School of the Art Institute of Chicagon literatura, itzulpengintza, literatur sorkuntza eta euskal hizkuntzako irakaslea izan da. Hainbat literatura aldizkarietan argitaratu dira bere idatziak. Musika arloan, Bilboko Goi Mailako Kontserbatorioan ikasi eta gero, musika klasikoa eta flamenko kantatzen ibili da Ingalaterran eta Estatu Batuetan, talde ezberdinetan. 1931 izeneko musika albuma atera zuen 2019an, Chicagon sortu zuen KANTUZ laukotearekin. Musika klasikoa, poesia, flamenkoa, jazza eta euskal kantuak nahasten dira albumean. Pandemiaren eraginez Euskal Herrira itzuli eta gero, bai musika elektronikoa eta bai soundscape formatua landu ditu, naturako soinu eta ahotsekin esperimentatzen. 2021ean, Galeseko Pererdinod Festibalarentzat Transhumantzia soinu paisaia sortu zuen Oihana Iguaran bertsolariarekin.

Aritz Galarraga Lopetegi

UCM

(Hondarribia, 1980) Universitat Autònoma de Barcelona, Universitat de Barcelona eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle gisa lan egin du. Literaturaren Teoria eta Literatura Konparatuan lizentzia eta Literatura Konparatua: Ikasketa Literarioak eta Kulturalak masterra eginak ditu UABn. Doktore da UAB eta Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitatetik, “Katalanera itzulitako euskal literatura (1982-2020)” tesiarekin. Salvador Espriu, Joan Vinyoli eta Gabriel Ferrater idazle katalanen poemak euskaratzeaz gain, ipuin katalan garaikideen antologia bat prestatu du (Hobe kontatzen ez badidazu, Pasazaite, 2014). Joxemari Iturralde (Kaleidoskopioa, Pamiela, 2012) eta Joxemiel Bidador (Klasiko bitxi, arront klasiko, Pamiela, 2016) idazleen prentsarako artikuluen edizio lana ere egin du. Euskal prentsako ohiko kolaboratzailea da, Argia, Berria, Deia, Erlea, Euskadi Irratia, The Balde eta abarretan. Estralanak lanean (Booktegi, 2017) bildu dizkiote prentsarako idatzi dituen testu esanguratsuenetako batzuk. Posteritatea izenekoan (Booktegi, 2020), aldiz, hamar urtez idatzitako nobedade ez diren liburuen

iruzkinak. Argitaratu duen azken liburua Gogoan dut oroitzapen bilduma da (Pamiela, 2021).

Garbiñe Iztueta Goizueta

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Irakaslea

---

Garbiñe Iztueta Aleman Filologian eta Ingeles Filologian lizentziatua da, eta Filologia Modernoan doktorea, literatura konparatuan. 2017tik 2023 urtera Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria da Etxepare Euskal Institutuan. Aurretik Euskal Herriko Unibertsitatean egin du ibilbide luzea, Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza saileko irakasle gisa (1998-2017 eta gaur egun), baita Aleman Filologiako koordinatzaile (2014-2017) eta Letren Fakultateko Nazioarteko Harremanetarako eta Mugikortasun Programetarako dekanorde (2007-2011) moduan ere. Honako gaiak izan ditu hizpide eta aztergai bere proiektu eta argitalpenetan: Alemania eta Euskal Herriaren arteko kulturartekotasuna, Euskal Herriaren irudia alemanezko bidaia-deskribapenetan, espazioa, emozioa, aberria eta oroimen-lekuak Ekialdeko alemaniar literaturan, botere espazioak Herta Müller idazlearen prosan eta identitatea Alemaniar Batasunaren ondorengo literaturan.



Eskarne Lopetegi Zalakain

HABE

Eskarne Lopetegi Zalakain (Donostia, 1964). Euskal filologian lizentziatua (Deustuko unibertsitatea, 1982-87). HABEren Didaktika zerbitzuko teknikaria eta ikas-material egilea. 2010az geroztik HABEren Metodologia eta Edukiak arloko burua. Egitasmo hauen sortzaile eta partaidea. Egun arduraduna: Ikasbil ataria, Primeran euskara ikasteko metodoa (2011-2024) eta Ingura euskara online (2021-2025) ikas-plataforma.

Gorka Mercero Altzugarai

University of Liverpoool

Gorka Mercero Euskara eta Euskal Ikasketen irakasle titularra da University of Liverpool-en 2014tik. Hori baino lehen, Etxepare Euskal Institutuko irakurlea izan zen bi urtez University of Birmingham-en eta euskal Hizkuntza eta literaturako irakasle Nafarroako Bigarren Hezkuntzako institutuetan sei urtez. Euskal Filologian lizentziatua da, eta euskal literaturan doktorea 2012az geroztik, honako tesiarekin: ‘Oroimena eta postmodernismoa euskal literatura garaikidean: errealitatea, norbanakoa eta nazioaren auziak’. Teoria Kritiko eta Kulturaleko masterra ere egin zuen 2004an Cardiff University-n. Erresuma Batuko Unibertsitate Irakaskuntza Elkarteko kide ere bada (FHEA, 2022). Hiru argitalpen ere baditu kaleratuta: ‘The world literary system and planetarity in Bernardo Atxaga’s Obabakoak’, Journal of Romance Studies (2021); Mundu-ikuskerak euskal narratiba garaikidean: modernitatearen krisitik postidentitatearen promesera (Bilbao: Amorebieta-Etxanoko Udala & Labayru, 2017); 'Learning to Think Otherness: Towards a Typology of World Views in Contemporary Basque Fiction', Bulletin Of Hispanic Studies 93 (2016).

Lourdes Miquel López

Lourdes Miquel Hizkuntza Eskola Ofizialetako atzerritarrentzako gaztelaniako (ELE) katedraduna da eta gaztelania atzerriko hizkuntza gisa irakatsi du hainbat hezkuntza testuingurutan (Frantzian eta Italian). Etorkinen irakaskuntzarekin zerikusia duten hainbat GKErekin aritzen da elkarlanean, eta gaztelania atzerriko hizkuntza gisa irakatsiko duten irakasleak (Espainiakoak nahiz atzerrikoak) prestatzen ere aritzen da, baita katalana atzerriko hizkuntza gisa irakatsiko dutenak prestatzen ere. Hainbat master eta graduondokotan ematen ditu eskolak, gramatikaren irakaskuntzaren inguruan. Gaztelania irakasteko eskuliburuen egilea da, baita mailakako irakurketarako bildumen egilea ere. Gramática Básica del estudiante de español (azken edizioa 2021eko urrian) liburuaren egileetako bat da. Hizkuntza eta kulturaren arteko harremanei, etorkinei gaztelania irakasteari eta gramatikaren irakaskuntza eta praktikari buruzko artikulu teorikoak idatzi ditu. Idazle gisa, nobelaren Jaén saria irabazi du.

Xabier Payá Ruíz

(Bilbo, 1982) Itzulpengintzan eta interpretazioan lizentziaduna. Hiru master ditu honako arloetan: Komunikazio multimedia, Europako Kultura Modernoak, eta Enpresa Zuzendaritza eta Administrazioa. Ingelesetik, frantsesetik eta gaztelaniatik euskaratu ditu hainbat lan: Desio izeneko tranbia, Peter Pan eta jaka eskarlata, Maite nuen, Herria, Bizitza amets... Artikulugintzan urte ugari jardundakoa da, bai irratian, bai prentsa idatzian: Euskadi Irratian, Bizkaie.biz agerkari digitalean, Gaur8-n eta Berria-n



Joseba Sarrionandia Uribelarrea

Joseba Sarrionandia Uribelarrea, idazlea (Iurreta, 1958). Euskal Filologian lizentziatu zen Bilboko Deustuko Unibertsitatean, eta euskara irakasle lan egin zuen. Bergarako UNEDen fonetika irakasle izan zen eta Habanako Unibertsitatean ere irakasle aritu zen. Zeruko Argia, Anaitasuna, Jakin eta Oh! Euzkadi aldizkarietan eman zituen argitara bere lehen lanak, eta Pott Bandako kideetako bat izan zen. Euskaltzain urgazlea, Ibaizabal aldizkariaren sortzaileetako bat ere izan zen. 1980an gatibu hartu zuten, eta 1985ean Martuteneko espetxetik ihes egin zuen. Kuban ia lau hamarkada luzeko erbestealdiaren ostean, 2021. urteko udaberrian itzuli zen Euskal Herrira. Sarrionandiaren ibilbide literarioa biziki oparoa da. Hamarkadaz hamarkada hainbat literatur sariketetan sarituak izan dira haren lanak. Eta haren hainbat liburu, Izuen gordelekuetan barrena (1981), Narrazioak (1983), Ni ez naiz hemengoa (1985), Marginalia (1988), Kartzelako poemak (1992), Hnuy illa nyha majah yahoo (1995), Lagun izoztua (2001), Kolosala izango da (2003), edota Moroak gara behelaino artean? (2010), besteak beste, euskal literatura garaikidearen baitako libururik irakurrienetakoak dira.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2022-07-11 ARTE
Orokorra	80,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	68,00 EUR
Matrikula exentzioa	56,00 EUR
Elkar	68,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	68,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2022-07-11 ARTE
Orokorra	80,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	68,00 EUR
Matrikula exentzioa	56,00 EUR
Elkar	68,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	68,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa